

Etxean ere matematiketan

ADITUEN ESANETAN MATEMATIKA



Testua: Leire Arana
Fisikan lizentziatua eta 'matematiketan.eus' webgunearen sortzailea
Argazkiak: newsletter. advantagespeech.com/

Matematikarekin zerikusia duten jolas asko egin daitezke etxean. *Matematiketan* jardutea esaten diot nik horri.

Hasteko, oinarrizko kondizio batzuk aipatu nahi nituzke, umearen momentua eta aldartea errespetatzearrekin zerikusia dutenak: batetik, etxean matematikaren inguruan sortu dezakegun giroaz, giro erlaxatu, natural eta ludikoaz, ari naiz; bestetik, guk jolasen bat proposatu baina haurrak jolastu nahi ez badu, lasai uztea onena eta beste baterako uztea, haserretu gabe eta ezer aurpegiratu gabe; azkenik, umeak esku artean darabilen jolasetik abiatzen garenetan lortuko dugu bere arreta hobeto piztea. Behatu dezagun zertan ari den eta pentsa dezagun jolas hori nola zukutu dezakegun matematikoki.

Beste asko egongo dira, baina, gaur, ia egunero izaten diren zazpi momentu ekartzen ditut.

1. Erosketetan

Joko handia ematen duen ekintza bada ere, kontuz erabiltzekoa ere bada, haurraren izaeraren arabera. Oso ekintza *publikoa* da, albokoei atentzia ematen diena, eta horrek zenbait ume agerian utzi ditzake. Presak ere sartu daitezke tartean, lerrokoak itxoinen

daudelako... Jolasa edo plazera behar lukeena tentsio eta haserregune bilakatu daiteke azkar asko. Beraz, umeak ez badu dendan kalkuluak egiten hasi nahi, hobe hurrengo baterako uztea. Bestela, hasieran aipatu dudana moduan, ekintzak denerako ematen du. Etxetik ekarritako zerrendaren sekuentzia jarraitzeko, dendako sailkapen sistema ezagutzeko, aleak kontatzeko, prezioak ikusteko, neurriekin jarduteko -1 kilo, kilo erdi, 1 litro...-, antzerako produktuak alderatzeko, merkeena, garestiena, handiena, txikiena, ertaina terminotan aritzeko, dirua erabiltzeko, kanbioen gaiari heltzeko...

2. Janariak banatzen eta prestatzen

Jarduera honek bost zentzumenak jartzen ditu martxan. Oso aberatsa da haurrekin batera sukaldatzea. Elkarlana eta lanaren bukaeran lortzen den produktua ere ezin dira gutxietsi, eta, gainera, matematikaren atal asko ukitzen ditu, hala nola neurria, -bolumen eta pisua, balantzak...-, kopuruak eta eragiketak, banaketak eta zatikiak eta, nola ez, errezeta bat aplikatzeak suposatzen duen ekintzen sekuentziazio logikoa.

3. Mahaiaren bueltan

Hau ere momentu bikaina da besterik gabe elkarrekin egoteko, baina, matematikari lekua egin nahi badiogu, sukaldeko mahaian aukera asko dauzkagu: bakoitzak jan dituen kopuruak kontatu, zenbat ale sobratu diren, mahai

gainean dauden objektuekin segidak eta serieak egin, jakien banaketa eta partiketak egin, eta, aste osoko kontsumoak aztertuz gero, ikerketa estatistikoak ere egin ahal izango ditugu; zenbat fruta ale jan ditugun etxean, noiz gehiago, noiz gutxiago...

4. Autoan goazela

Bidaieen gaiak, etxeko lanen gaiak bezala, luzerako emango luke. Bidaieok laburrak badira, gaitz erdi, baina luze samarrak badira ... zenbat aspertura, haserre eta zorabio elkartu daitezkeen denbora tarte berean. Ai, ama!

Nik uste dut ondo planifikatu beharrekoak direla bidaieak. Jolas eta ekintza sorta on bat aldeztu aurretik pentsatuta eraman daitezkeela eta gogo txarrez egingo genukeena berriz ere jolasgune bihurtu. Eta, bide batez, ezinbestekoa dirudien DVDaren dinamikatik irten. Entzuteko edo asmatzeko ipuinak eta abestiak eta *Ikusi-makusi* bezalako jolasak hor daude, baina matematikari bere txokoa erraz egin diezaiokegu: trafikoko seinaleekin geometria aztertu ahal izango dugu, matrikulen zenbakiekin zifra identifikatu, eragiketak egin, 10en deskonposaketak bilatu, milako zenbakiak identifikatu, zifrekin eragiketak egin, erlojuaren erabilera, distantziaren neurketa...

Autoan doan partaide bakoitzak forma geometriko bat edo matrikuletako zifra bat, edo 10en deskonposaketa bat -1-9, 2-8, 3-7, 6-4 eta 5-5- aukeratu eta



ETXEAN UMEEKIN MATEMATIKETAN ARITZEKO EZ DA 4-5 URTERA ARTE ITXOIN BEHAR

identifikatzeaz arduratu daiteke, zeinek gehiago identifikatu apuntatzen joan daiteke eta berriz ere estatistikarekin lotu...

5. Haurra jostailuekin ari denean

Piezadun jostailuak badira bikotekaketak, irizpide ezberdinen araberako sailkapen eta ordenazioak, kontaktak egin, konparazioak egin, piezak gorde eta pistak emanaz aurkitzera jolastu daiteke. Eta umea zaharragoa bada, zatiketa eran jarri daitezke kopuruak, kopuruaren dekonposaketak egin daitezke, forma geometrikoak eratu, biderketa egoerak probokatu edo aztertu...

6. 'Betaurreko matematikoak'

Hau etxeko guztiek egiteko modukoa da. Jantzi *betaurreko matematikoak* eta hasi deskubritzen zuen etxeetan lehendik ikusi gabe zeneuzkaten kontzeptu matematikoak. Biderketak, batuketak, forma geometriko bitxiak... denetarik deskubrituko duzue.

7. A propos ekarritako jolasak

Mundu oso bat zabaltzen da atal honekin; betikoak aipatzearen, domino, bikote jolasak, antzararen jolasa eta partxisa, *tres en raya*, karta jolasak eta xakea aipatuko ditut, baina benetan mundu bat dagoela esparru horretan. Partxisean edo antzararen jolasean 2 edo 3 dadorekin jardunda eragiketak egin eta egin arituko gara, eta kartekin *karta-gudak*, eskoba, briska eta beste jolas asko kontzeptu matematikoz josita daude.

Etxean umearekin matematiketan aritzeko, ez pentsa 4-5 urte izan arte itxaron beharra dagoenik. Betiere, haur bakoitza mundu bat da, baina txiki-txikitatik jarri diezazkiekegu zentzumenak aktibatuta ahala deskubrituko dituzten jolasak. Ukitzekoak, ahoan sartzeko modukoak, bata bestearen barruan sartu eta gordetzekoak... ia edozerekin ari gara matematiketan; 18 hilabeterekin jostailuak kutxatan sailkatuta jasotzen ari garenean matematiketan ari gara; eta gauza bera koloreka edo formaka antolatzen ditugunean jolasen bateko piezak; edo objekturen bat ezkutatu eta pistak ematen dizkiogunean bilatu ditzan... urrunago, atzean edo gainean esanda, matematiketan ari gara. Proposamen konkretuak ikusi nahi badituzu, segi adi gure *matematiketan.eus* webgunearen jarduna, halako batean emango ditugu-eta proposamenok. ■■■